

Proposamena, esku hartze artistiko bat egiteko Bilboko Itsas Museoaren aurreko zabalgunean - 2019

Proposamena Aurtenetxea Containers enpresak egin du Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatearekin, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoarekin eta Bilboko Udalarekin batera eta Bilbao Art District ekimenaren barruan gauzatuko da.

Esku hartzea Bilboko Itsas Museoaren aurreko zabalgunean

Merkantziak itsasoz garraiatzeko erabili ohi diren industria edukiontzirekin esku hartze bat egitea da helburua. Edukiontziak Euskalduna zubiak eta itsasadarraren bi ertzek osatzen duten hiri anfiteatro guztitik ikusi ahal izango dira.

Bi edukiontzi ditugu: bata handia eta, bestea, txikia. Beste bi edukiontzi ere erabili ahal izango dira.

Edukiontzi handiaren tamaina: 6 x 2'5 x 2'5 m.

Edukiontzi txikiaren tamaina: 3 x 2'5 x 2'5 m



“Plastikozko itsasoak”, 2018
María Acuña.



“El camino de la sirga”, 2017.
Xabier Dobarán eta María de Viana.

Arte Ederren Fakultateko ikasle guztiei zuzendutako deialdi bat egingo da edukiontziak euskarri moduan erabil ditzakeen proposamen iragankor bat aukeratzeko. Ekintza bukatzen denean, lekua egungo egoeran geratuko da berriro.


Proposamenean planteatu beharko diren muntaia soluzioak edukiontziekin egitekoak izango dira, eta horietan esku hartzeko aukera egongo da. Esku hartzeak, diren modukoak direla (piktorikoak, eskultorikoak, ikus-entzunezkoak, performatiboak, etab.), edukiontzien kanpoko aldean egin beharko dira nahitaez.

Aurkeztutako proposamenaren arabera, edukiontziak kolore batean pintatuta eman ahal izango dira.

Aurtenetxea Containers enpresa ez da edukiontziak muntatzeaz arduratuko; bera ardura da garraioa, behar instalatzea eta segurtasun neurriak ezartzea.

Edukiontzietan esku hartzeko aukera egongo da, bai edukiontziak Itsas Museoaren aurreko zabalgunean jarri baino lehenago, bai beranduago.

Kontuan hartuko da proposamenek esku hartzea egingo den tokiko testuingurua, hau da, Itsas Museoaren aurreko zabalgunearen testuingurua aintzat hartzea eta Bilboko itsasadarrarekin, itsasadarraren berreskuratzearekin, hiriarekin daukan loturarekin, portuari lotutako iraganarekin eta abarrekin lotutako gaiak lantzea.



"Paperezko itsasontzia", 2016.
Álvaro Aroca.



"Contenido contenido", 2015.
Juan Malk.

Zuzkidura ekonomikoa:

• **1.500€ aukeratuko den proposamen bakarrarentzat.**

(kopuru horrek barne hartzen ditu laguntza-poltsa eta produkzioarako gastuak)

Proiektua banaka zein taldeka egin ahal izango da, kontutan hartuta saria proiekturako ematen dela eta ez parte hartzaileei.

Aukeratutako proiektuaren egileek konpromisoa hartzen dute urrian jarduera osagarri bat egiteko. Jarduera izan daiteke ekintza bat, aurkezpen bat, hitzaldi bat, bisita gidatua, performance bat...

Datak:

Apirilaren 5a: proposamena ematea

Maiatzaren 3tik 15era bitartean: esku hartzearen inaugurazioa.

Proiektuaren iraupena: sei hilabetetik urtebetera bitartekoa

Proposamenak:

Dossierrek honako hauek eduki behar dituzte:

- Izen-abizenak, helbide osoa eta harremanetarako datuak (e-maila eta telefono zenbakia)
- CV laburra
- Aurreko obraren erakusgarri diren argazkien bilduma (gehienez 10 argazki)
- Esku hartzea egiteko proposamena eta aurrekontua

Euskarri digitalean (PDF formatuan) bidali beharko dira, gehienez 5 Mb izango dituzten artxiboetan, honako helbide elektronikoa honetara: ecultural.bellasartes@ehu.eus;

+ Informazioa: ecultural.bellasartes@ehu.eus

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea eta betetzea dakar berarekin.

Oharra:

Parte hartzaileak baimena ematen du bere datu pertsonalak "Esku hartzea Itsas Museoaren aurreko zabalgunean" izeneko deialdiaren onuradunak aukeratzeko eta horien jarraipena egiteko sortuko den UPV/EHUren fitxategi baten sartzeko. Datuak horretarako izango direla jakinarazten zaio Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 5. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Jakinarazten diogu, halaber, datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko edo horien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakeela. Horretarako UPV/EHUko DBLO segurtasunaren arduradunari idatzi bat igorri behar dio honako helbide honetara: UPV/EHU – Errektoregoa – Sarriena auzoa, z.g. 48940 Leioa (Bizkaia). Idazkiari bere identitatea egiaztatzeko dokumentuaren kopia ere erantsi behar dio. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko UPV/EHUko Arautegia ikusteko, sakatu hemen: www.ehu.es/babestu

